



JAUINGOIKUA ETA LACI-ZARA  
EUZKELTZALE-BAZKUNA. BILBAO

# ELENETXU

ETA

## UMIEN LENENGOZKO JAUNARTZA

EUZKO - DEYA 'ren  
ARGITALGINTZEA



ATV

8.459

Ijelmo'ren alargun eta semien irarrekolea.  
Abando, Arbolancha-T'an.



H-10210  
R-36828


AN  
8559

## "EUZKO-DEYA," REN ARGITALGINTZEA

# ELENETXU

— TA —

## UMIEN LENENGOZKO JAUNARTZA



Grijelmo'ren alargun eta semien irakolea.

— Abando, Arbolancha - 1'gn.

imprimatur:

**Joseph, Ep. Victoriensis.**

Victoriae, 18 Martii, 1912.

## UARTXUBAK

Liburu (idaztitxu) au irakuñi edo *leidutian* eñazago uleitu dadintzat, iminden doguz emen: lenengo, izki edo *letra* atzalgarrijak, eta ufengo, itz edo *berba* gitxi ezaunak.

### Izki edo letra atzalgarrijak

<i>tx</i> da érderazko	<i>ch</i> lakua	: <i>etxia</i> da <i>echia</i> .
<i>r</i> » »	<i>rr</i> »	: <i>sagara</i> da <i>sagarra</i> .
<i>l</i> » »	<i>ll</i> »	: <i>olua</i> da <i>ollua</i> .
<i>t</i> » euzkerazko	<i>it</i> antzeduna:	<i>atea</i> da <i>aitea</i> .
<i>x</i> » »	<i>ix</i> »	: <i>axia</i> da <i>aixia</i>

## ITZ EDO BERBA GITXI EZAUNAK

*jaunatu*, komulgau  
*doipuru*, ata santu  
*lagi*, lege  
*Oteun*, ostija santuba  
*zorun*, zori-on  
*irarri*, inprimidu  
*janskoŕdun*, kardenal  
*ludi*, luŕa  
*ukidazki*, esku-kartea  
*obenge*, pekaturik ez-  
tauna  
*laketu*, laga, itxi  
*izpar*, baŕi  
*idazki*, karta  
*tekuiime*, monja  
*aizpa*, »  
*donoki*, zeru  
*Doibatz*, Elexa

✉ *azketsi*, parkatu  
*ukidazki*, autógrafo  
*donoki*, zeru  
*otoi*, eŕegu  
*oldoztu*, pentsau  
*ogendaldu*, engaňau  
*erail*, il-erazo  
*jakidi*, jakin-batza  
*jasan*, eruan  
*ulerŕtu*, aditu  
*Sendatza*, konfirmazi-  
ñua  
*ikuŕton*, sakamentu  
*oŕbange*, loi-bakua  
*aintza*, glorija  
*alikatu*, gorputza jan-  
-edanaz sendotu

## U A R A

---

Idaztiñó autan irakuŕten diran jazokun gelgafijai ta notiñen eritxijai, Doipurubak sendotu ta egiztabak ezpa-dira, eztaútsegu gixa-emien itzai baño ziñeste geyago emoten, VIII Urban Doipurubaren lagijak agintzen daben lez.





## GORAJOSU

---

«Josu oteundubaren ixenaz zaudazan matiak erazo  
»daust, ene ume oyek, idaztiño au zubei opaltzia,  
»umien lenengozko jaunaftzat asten dan aldi zorun-  
»dun autan.

«Jaun-goikua'k gura-begi, Nellie-(1) bijotz-berearen  
»eredu gelgaitijaz azkoftuta ta gogua berotuta, getu  
»dadila Josu'gaz batzetako, Bera sañijago ta sutsuba-  
»go zuben bijotzotan biztanduteko dozuben gurarija;  
»geruago ta matiago Bera ixateko ta irelandar go-  
»tzontxu edo aingerutxu augaz zubei ageftu dautzu-  
»ben matasun berezijari egunik egunera obeto er-  
»antzuteko dozuben lera bixija.

«Zubek lenengoz jaunaftuko dozuben eguna, Josu  
»ta Miren zuben gogo-bijotzen jaube bakaf ta betiko-  
»tzat autuko dozubezan eguna ixan bedi; ixen goza-  
»tsubok zeben bijotz-ezpanetan iraftita lotu bediz, zu-  
»ben biztaldijan eurok esango dozubezan gustijetan,  
»Donoki-gotzonak pozofez urduriitu dadixantzat.»

Auxē esaten eusen ume erdeldunai idaztiño au ita-  
leratik espānerara biguītu eban janzkofdun-jaupari  
edo abade jakintsu ta aguīgañijak. Auxē esaten dau-

---

(1) Olan esaten da ingalanderaz *Elenetxu* ixena.

tset neuk bē euzkeldun umiai idaztitxu au euzkeraztuta, eurei opalduten dautsedala.

Biztu bedi euren bijotz samuñetan Josu'ganako gafata berea. Eta aunen uñengo betoñkez beste euzkel-idazti asko ta 'asko euzko-gixoztiai Zeru, Donoki-bidia erakusteko.

EUZKERAZTALIA.

---

---

¿Zer da ikusten dogun au? ¡Zorijak soútuba ala Jañ-goikua'ren eskubak ekañja ete·da? Ezin-dogu, ta gura be eztogu gauza onetzaz geure aburuba esan. Idaztiño autan eztot besterik egingo irakuflé bijotz·bereai jazokuna soil-soil ageftu baño, batá, alik batínen, ziúren, jazo·aldíja ta erea be, epairik egokijena emoteko eskubidia bakotxari itxirik.

Baña okeí-ixateko bilduñ-barik esan al-dogu, begijen aurian dogun jazokun oni dafaitsoen atzalgijak, alatz edo *mirari*-antza emoten dautsaela

Lenengo ikusten dogu gotzañ (obispo) batek, goi-argiz jota ta jazokunen zeindasunak biañtuta lez, lau urte baño asko geyago eztaun neskato bati geure Jauna aítuteko eskubidia emoten dautsala. Umetxu samuñ onek aítu dau Josu oteunduba (Otean-ogi-deun edo ostija santuba), gotzonen antzedun guñ ta bijotz·bereaz, ta sañi aítu be, geruago ta gogo beruagoz, lenengo jaunaítzetik lastertxu il zan arteraño. Ikaskidiak alatz (*mirari*)-antzedun jazokunok gogua biztu·ta, gotzona (aingeru) irudijala il zan aldi-aldijan, alatz (*mirari*) bat egiteko eskatzen dautsae; eurek eta ludiko ume gustujak laster euren bijotzetan Josu oteunduba aítzeko eskubidia ta baimena.

Bigañen, ikusten dogu kedatz (*incienso*)-luñuna lez, obenge onen otoi edo eñegubok Goiko Jauna'ren baulkira (eñege·aulkira) igon ziranetik ilabete gitxi

-buruban, Josu-Kisto'ren Iudiko Ordelarijak, X Pi doi-purubak, irabagi, laketu ta bere gurea ageŕtu ebala, umiak, biaŕak diran geŕkunak betezkero gaste-gaste-tan mai deunera uŕeratu ledixantzat.

Baŕiro itanduten dot: ¿bedegaŕa, edo gixa-emiak al-dabenaren atazkua ete-da au? Erantzun begitsoe itaun oni uŕengo atatuko diran Elenetxu'ren biztaldi-ko izpaŕ labufak, eta bere erijotz edeŕaren osteko ja-zokun batzuk.

---

## Ireland'eko Cork'eko Gotzalaiak Roma'ra bidaldu eban idazkija

*Cork'etik, 1910'gko. Azila-13'gn.*

Uga mate oí aguíf: Aunekin batez bidaltzen dauskat bertoko Unai Ona'ren lekaime-ikastetxeko neskatuak idatzi ta egin yoen idazkija. Oso-osorik eurek egin yoek, eta bertan ikasle txikijok ageftzen yoezak euren bijotz beraetako gurarijak.

Idazki oritan atatuten dokan Elenetxu, neskato berezi-berezija ixan zuan. Txiki-txikitatik erkiña, gexotija zuan, konkorf-samaña, ta gexo mingafijakaz ija beti minduba. Iru urte yuazanetik, Goiko Jauna'k bedegáez argituten yuan, eraskun berezi-berezijak geure oindijetako (altaraetako) Jaun oteundubagana yeruala. Sañi ageftu oi-yuan gurari bixija aizpa (monja) gexo-zañak txadonera (elexara) eruan yegijantzat, eta antxe egoten zuan luzaro *Jaun-goiko deuna*'ren aufian, berak geure Jauna'ri ereizten yeutsean lez, atsegín-atsegín-zuala. Gexuago zuala-ta txadonera (elexara) eruan ezin-yoen aldiha eldu zuanian, eskatu yeutsean gexo-zañari egunoro goxan, jaunaftuta laster juan lekijola mun-yegitseantzat. *Jaun-goiko deuna* aítzeko yuan egañi bixija asetuteko, jaunaftzia laketu nayeutsean, eta sañi egin yuan il baño lenago:

Jaunaftuta gero luzarotxu egoten zuan sof-gof-

tuta lez, gogo beroz otoi-egiten, eta gexo-zañak itanduten yeutseanian zer egiten yuan, *Jaun-goiko deuna'*rekin itzez yeguala erantzun yerauan. Beste neskatuak, bere ikaskidiak, eskatu yaustek, ařen, Doipurubari (Ata Santubari) bidaldu yagitsadala euren idazkija, eta orixe yagitat, egingo ezpa'nayeuk atsegutuko nayeukezala bai-deritxeat-eta.

Nik, idazki ori elbijau (berbetea aldatu) dagikala eskatzen dauskat, eta ukañi dagitsakala Doipuru agur-gafijari.

Elenetxu'k lau urte ta eřdi yuazan il zuanian.  
Aguř ta agindu.

T. A. O. CALLAGHAN

*Cork'eko Gotzaliari.*

---

## Ireland'eko Deun-Finbar ikastetxeko neskato ikasliak Doipurubari bidaldutako idazkija

Deun-Finbar ikastetxeko ikasletxubok batzau gara gauŕ, *Jaun-goiko Deuna*'ri eskaŕ-egiteko, *Lenengo Jaunartza*'tzazko lagija argitalduteko zeure goguari argi-egin dautsolako. Ezkara iñoz zeure aldez otoi-egitiaz gogatuko, ta eskatuko dautsagu *Jaun-goiko Deuna*'ri bere Bijotz eskaŕtsubaren baŕuban leku-dagitzuntzat.

Umetxubai gaste-gastetan jaunaŕtuten laketubaz (itxijaz) egin dauskuzun eskaŕ esan-gatxa, pozor ta gotas (arima-asia)-ituŕija da geuretzako, ta augaŕik azaŕtuten gara idazki au, done ori geure eskaŕ-agur zintzua daruatzunau, zeuri bidaltzen.

Saŕi itanduten dautsogu alkaŕi, zeuk, done oŕek, Elenetxu geure laguna, lau urte ta iru ilabete ebaza-la *Jaun-goiko deuna* aŕtu ebanaren izpaŕik (baŕiŕik) ete dozun. Lera-leratsu *Jaun-goiko deuna* eskatuten ebala-ta, geure Gotzale matiak ezin eutsan gura-gura-ebana ukatu; aŕtu eban, ba, joskorputza (Josu-gorputza) 1907'gko. Lotaziŕa 6'gn.; gustijok erdu gintzan txadonera (elexara) jai samuŕ ofetara, lenengozko jaunaŕtzekeko eresefkija abestuten (kantetan).

Tamala dogu, zeu, Doipuru maŕe ori, egun atan emen egon etzintzalako; ikusiko gendukezan geldu-gelduta (mirarituta) neskato gaste ari begira, *Jaun-goiko deuna* emakume urtetsubak lez aŕtzen ebala, bere tayuan, batez-be aŕpegiko margo ta gorijaz,

bañuba eŕetan eutsan matasun-sukaŕa ageŕtzen ebala.

Gotzonen aŕtian bixiteko donokira (zerura) juan zan afteraño ogetamabi alditan jaunaŕtu eban, eta batzutan zeu, geure aba done oŕen aldez ta Doibatza (kistaŕ-batza)'ren aldez opaldu eban jaunaŕtza. Egunoro zeure aldez ta Doibatzaren aldez otoi-egiten eruan. *Jaun-goiko deuna*, ta *Jaun-goiko deuna*'ren Amea bere bila etofi yakozan 1908'gko. Otsala-2'gn.

Omengaŕijak (goragafijak) esten dautseguz geure burubai, bera bixi ta il zan etxe onetako ikasliak garalako. Geure bińf ta lańi-aldijetan bere laguntza uste-betez eskatzen dautsagu, ta ija beti batin (ziuń) itxaroten dogu geure eskarijaka entzungo dauskuzala.

Urtebete egin-egiňa, Elenetxu'ri bederatziuŕena asi geutsan eta gabeko otoyen ondoren egiten geban, eskatzen geutsala alatz edo mirari andi bat legijala: bere lagunak eta ludiko ume gustijak, berak jaunań. tü eban adińik uŕenan, geure Jauna aŕtuteko eskaŕ ta lakemena jaristia. Eritxi okeŕa ete-da batin edo ziur zinestia, lenengozko jaunaŕtzazko erabakija bere bitarfez egin dozula, ta geuk eta ludiko neska-mutiltxu gustijak eskaŕ berezi ori geure bijotzeko Elenetxu'ri zoŕ-dautsagula? Geure eretxi au ogena (engańua) ez-pa-da zoruntsubak (zorijontsu) etsiko geuskioez geure burubai, Aba done maŕe oŕek geure loratxu au lora-zale-zalia zan geure Elenetxu au.

Deunak baño bixi eztiran Doibatza'ren baratz atseginaŕijan jańiko ba'zeu, aulan bera *Umien jaunańtzaren Deuntxuba* ixendau al-ixateko.

Aba donematiá: Elenetxu dala ta eztala esaten dir.

an jazokun gelgafijak (miragañijak) ezin-geuzkezuz edestu, baña 'bai-dakigu geure irakaslari onak bere esakunak bildu ta piloto dabezala. Geuk, ostez, diñoguna da, Elenetxu'k gogo beroz *Jaun-goiko deuna* ártu gura-ixan ebala, ta bere gurea egin zala; eskatu daula *Jaun-goiko deuna*. Bera geugana etoñi dadila, ta geuk be guratsu gebana loftu dogu. Egijaz, bera da, bai, *Oteuna'ren loratxuba*.

Orain, Aba done mate, azketsi egiskuzu, afen, idazki luze an irakuñten igaro erazo dautzugun asti (denbora) ederña. Zeu, done ofen aurian gogoz auzpeztuta, etxe onetako biztanle edo notin gustijoentzako onespen berezija eskatzen dautzugu, bat irelandar ume orontzat, eta loratxu au erne ta azi zan luiki (luñalde) aunientzat, geure bijotzeko Ireland'entzat.

*Geure Doipuru matiari  
Finbar'ko Ikastetxeko neskato ikasliak.*

---

## **Doipurubaren ukidazkija (esku-kartea), aurekuari erantzuten dautsana**

Cork'eko Unai Ona'ren lekaime-ikastetxeko neskato matioyek, aguñ: Bijotz-bijotzetiko aguña egiten dautzubet, zuben idazki jauntzale ta Josu-Kisto geure Jaun oteundubaganako mañasun-usaintsubaz irakutsi ta ageñtzen dozubezan bijozkadeakatik; eta batez eskar-askañ dagitzubet Doibatza'ren eta neure aldez otoi-egiten dozubelako. Azkenetan jakin egixube gura-dodala zubek beti onak zadixala, oraintxu, umia zala, donokira (zerura) igon zan Elenetxu zuben ikaskidiaren antzedunak. Antxe otoi-egiten dau berak zuben aldez, zuben sendi (pamilija) ta aizpa (monja) irakaslarien aldez, zuben nagosijen, batez be Gotzale aguñgafijaren aldez.

Aba-mañasunaz damotzubet Doipuru-onetsa (bendi-xiñua).

Batikano'tik, 1910'gko. Azila-24'gn.

X PI, DOIPURUBA.

---

**Elenetxu'ren biztaldiko izparak, bera ilda Cork'eko Deun-  
Finbar ikastetxeko Unai Ona'ren lekaimiak argitaldu  
dabezanak.**

Ixi egixubez umiak Neu'-gana etoñten eta ezegitsezube eragotzi (debekau), donoki-ala eurentzako da-ta. (Deun-Marka 10-14).

1908'gko Otsala-2'gn., igandia (domekea) zala, Jaungoiko Betleem'eko Señak detu eban Bera'gana geure Elenetxu, lau urte ta bost ilabete baño ixan-ezañen oso gelgaríja ta idebakua zan neskatua. 1907'gko Ofila-11'gn. geure langintza-ikastolara (lan-egiten ikasteko eskolara) bidaldu euskuben Elenetxu bere aizta batekin; lentxubago Amea il yakon, umezuñtz loturik, eta bere Ateak, *Spike Island*'en gudari (soldau) bixi biañ-zan-eta, ezeban bere alabatxubaren irakaskintzarako astirik.

Elenetxu 1903'gko Dagonila-24'gn. jayo zan, eta bere gurasuak, bijak kistañ zinduak, Horgan'daf Gilelma eta Aherne'taf Miren eretxen.

Geure zainbian jañi ebenian estul ikarakoñak arfzen eban Elenetxu; augatik, osalarijak, arduraz ta astiro aztertuta gero, osategira (osatzeko tokira) eramateko agindu eban.

Begirada bategaz igañten eben gustijak neskato augan geldu (miraritu) gairik bai-zala ta gustijen eritziz Jauna'gazko matasunaren kutuna, ta begikua zan; *Jaun-goiko deuna* zan bere oldozkun bakafa, ta

bere mate-gairik lenena. Bere begi baltz, andi, zoli-jak, bere guramen eta bijotz adoretsubaren sendua ageftzen eben. «Itxi egixubez umíak Neu'gana etor-tten» esan cbanak bere matasunaren ikuŕatzaz (señaliaz) Bere'tzat ikuŕtau ta detu eban. Osategijan aldi-zati baten egonda obetuten etzala ikusi gebanian (gendubanian), Josu-Bijotza'ren gexotegitxura eruan geban; geure etxe-inguruko ormaen baŕuban dago berau, gexoren bat bestiakandik aldendu ta uŕindu biaŕ-ixaten daneko.

Aldi onetan gexuagotu zan, eta osalarijak, gexuari auŕerapidia ta indaŕa kentze ko gauza osakayak etzir-alta, osabiderik ezebala auŕkitzen, eta origatik bere bixitza luzatzeko itxarorik ezeguala autoŕtu eban. Ordubantxe Josu-Bijotza'ren matasuna bere umetxu au-gan argiro agiri zan.

Elenetxu'k zer-edo-zer gelgaŕi (miragafi) ta gixa-emien almen-atazkua ebala iragaŕten eban lenengo ageŕkun eta ikuŕfa zan, joskorputza aŕtze ko bere bera sutsuba, bere gura sendua.

Josu-Bijotza-gexotegitxuban eguala, neskato anditxu batek bere onduan lo-egiten eban, eta gexo-zaña ataz eguanetan jabouten (gordetan) eban.

Bere lagun onek be ezeban osasun osua, eta origatik batzutan jaupea (mezea) entzun eta Joskorputza aŕtze ko ezin lagi ixaten zan. Au lenengoz jazo zañian neska gexua ixutu zan Elenetxu eguan gelean saŕturik onek esan eutsanaz: *Gaur, beintzat, ezton Jaun-goiko deuna aŕtu; neuk esango yautsanat Ameari.*

Auŕerantzian gexo-zain txiki onek igespide edo as-

mo umekoña aftu eban Elenetxu zelatzale zuña ogendalduteko, biañez noxan-bein goxetik jagi ezingo ba-zan; baña bere asmo gustijak alpeñekuak ixan ziran, Elenetxu efaz ogendaldo ezin-ebalako; oyan lotutenean zan bakotxan ezpai-barik beriala salatuten eban; eta itanduten eutsanian nundik nora ekijan ori, ezeban auxe baño erantzuten: *Nik yakinadana don gauř estonala Jaun-goiko deuna aŕtu.*

Gexotegijan Praga'ko Josu-Umia'ren irudi txiki bat egulan; bere bitártzez osasuna loftu ebala esan eruan Elenetxu'k. Aldi atan bizkor-samaf egulan. Eskatu oi-eban irudija, ta eskuban eukala eskař-egiten eutsan Josu-Umia'ri, ume-esakun eztitsubetaz. Egun baten, bian jezarita, bere kutuna laztandu ta bulař-gaňian estututen ebala, beingo baten luřan ipiňi ta esan eban: *Orain, neure Umetxu ori, dantzaldi bat egistak.—; Tentelkerija!... esan eban lagunak, ikusiko don etxonala zirkiňik egingo.—Bai, egingo yon,* erantzun eban beriala Elenetxu'k, eta bat-batez, an egulan turuta bat aŕtuki, bere indař gustijakaz joten asi zan.

Neskatilak ekin eutsan bere lanari ezer aditu-barik, Josu-Umia'k egiten ebazan bira zoragafijak ikusteko neskatuak uaŕtu eutsan aŕte. Lagunaren aŕpegijan ziňeskatxaten iři - bařia ageŕtu zan, baña gelduta (afituta) lotu zan gero, Elenetxu'ren tayua begiratuki, bere aŕpegija iňoz ez lez irudibijauta (irudija aldatura) ikusi ebanian. Ezpanak zuri-goři ebazan, begijak gozatsu argi-egijen irudijari begizka, ta beragandik izpirik bapez aldendu-barik, ezeban orduban besterik egiten, didař zolijakaz bere laguna ta une atan etoňan beste neskato bati dei-egin baño: Neskato au afituta

lez gelditu zan ixuz ta bilduñez jazokun au ikusijaz. *Ekin oin diño turuteari, iñuan Elenetxu'k; or'a, begiratu egixube zelan dabilan ijutiku;* eta ekiten eban indar gustijakaz turutea joten. Gerotxubago esan eban: *Ointxe geldilu da,* ta bera be len lez lotu zan bere senera biguítuta.

Gexo-zain aizpeak (monjeak) ezekijan jazokun onen izpafik (bañirik); baña gaban defu eban neskatila, ta itandu eutsan zer jazo zan gexotegijan bera andik ataz ibili zan aítian, Elenetxu urduritu-urduritu zan-eta. Ezin eban ziñetsi entzuten eban edeskuna, ezpai-biderik ixan-ezañen, bi ziralako ikuskixun gelgari au ikusi ebenak..

Amea erail eban birijetako gatxaren loñatzak asi ziran agirtzen, adirazoten ebela gexo onek gorputz bigun erkin a gotu ebala. Askok esaten dabe auxe dala Deunen gexua, edo beintzat Jaun-goikua'ren otsein zintzuak geyenetan ixan daroena.

Or dutik aufe gexo-zain aizpeak ardura ta alegin gustijkak egin ebazan bera jaboten (gordetan), matasunak asmau al-dauzan leunketa gustijkak beretzako ebazala, ta bera ondo eukitiañen, amearen bijotzak ixan-ezik beste iñok jasango (eruango) eleukezan nekiak gogoz aítzen ebazala

Bera yakon Jaun-goiko-matasun-jakidija irakasten eutsan irakasle jasantuba.

Ilako lenengo bariku baten eruan eban bere gexo-txuba Josu oteunduba agirijan eguna txadon edo elexara; bere onduan leku erosoa bat geftetan eutsan aítian, umiari iñotsan nor dan Oteuna'n guýtutene dogu-

na, ta Jaun-goiko deuna donoki edo zerutik jatsi zala bere matasuna geuri ageítzeko.

Une atatik irudijan umetxubak argiro ezautu ta uleítzen ebala matasunezko eskutapen au, kistaí askok eta askok oi-daben baño obeto, eta auferantzian Oteuna irakusten zan egun gustijetan, iñok ezer atatu-ezaíen be, ekin eta ekin eskatuten eutsan gexo-zanari *Jaun-goiko deuna'*ren auíera eruateko. Txadon edo elexara elduta atsegiñez lotuten zan, begijk Oteuna'gandik aldendu-barik, eta eskutxubak bulaí-ganian eunduta, otoika lez.

Lasteí igaíi zan Elenetxu'ren Jaungo zaletasun eta eraskun sutsuba, ta onegaz asi zan bere ospia (entzutia) zabaltzen.

Ume gelgaíi (miragai) onetzaz geure gotzale edo obispo guígaíijak zer-edo-zer entzun eban, ete goiz baten, geuk eskatu-barik, uíutizkiñez (teleponoz) esan eutsan geure lekenburubari (monja nagusijari) geura era etoíiko zala Elenetxu'ri Sendatza (Konfirmaziñua) ezaíteko.

Aldi atan auldu ta inðar geuan, eta ez belaunbi-ko ez jezaíita be egon ezin zalako gexo zain aizpeak eruan eban txadon edo elexara, ta bere besoetan Go-teuna (Espíritu Santuba) aítu eban, *cgis, edonun donetu al-gauzana* Gero egunetik egunera getuten zan Elenetxu'ren Jauna'ganako lerea, eta berak iñuan lez, Sendatza-ikuítonaz *Jaun-goiko deuna'*ren gudar-itxuba (soldaotxuba) egin zan.

Gexo zain aizpeak irakatsi eutsan bere nekiak Josu-Kisto gurutzaldubarekin batzauteñ, eta lau urte baño ezebazan umetxu onek min eta neke gogoíenak

jasaten (eruaten) ebazan intziririk egin-barik. Sañi aítu ta estutu eruan gurutzetxu bat. Bein gexo-zañari irakusten eutsala esan eutsan: *Jaun-goiko deunak asko ta asko nekautsi yon gurutzian neugatik.*

Gexo-zañak jaupa edo mezara erdu ta jaunaftuta geroxe, goxan-goxan bere gexotxu matia ikeítu edo ikusten eban. Egun baten, beti lez bere oera uferatu zanian geldu edo miraritu zan Elenetxu'k esan eutsanogaz: *Jaun-goiko deunak amatzat emon aust; u'ren go Bera Oteuna'n aítuko donanian, erdu geroxe neu lastanduten.*

Bere lelua auxe zan: *Nik Jaun-goiko deuna aítu gura-dot. ¿Nok ete-daki nos etoríko dan? Nik, gura-dot, ba.* Bein geure lekenburubari esan eutsan: *Ama, Jaun-goiko deuna aítuko donanian ¿ekaíko daustan gero neuri?* Lekenburubak zer erantzun jakin-barik lotu zan, eta auxe baño ezeutsan esan: *Neuk eskatuko yauitsanat Jaun-goiko deunari mate-mate-aginala, Elenetxu; ta jaupa-ondoren eu ikeítutene (ikusten) etoríko non.*

Eskintz onekaz poz-zabal eguan gexotxuba, ta inuan: *Pantzeske lekaimiak ekaíko daust bijar neuri Jaun-goiko deuna.* Gurari bixi ta pozkoñagaz itxaron eban Elenetxu'k geure aizpeak (monjeak) ikeítu edo bixitauko ebala; baña bijaramonan, bai-etoñala ta *Jaun-goiko deuna* ezkañala ikusi ebanian bere itxaruak luña jo eban, eta mingoitz-samiñez negáez, asi zan.

*Jaun-goiko deunak* ezln-eban luzaruago asetu-barik euki bijotz eñuge aren lera bixija, *Jaun-goiko* geure *Jauna'ren* asmo matekoña, bere matale txiki onen bi-

jotza bixi-tokitzat aítutia bai'litzan. Neskatuaren negafak garaitz osua jadetsi eban; bere bijotz mañalia onetsija ixan zan, eta *Jaun-goikò deunak* irakutsi eban gogo (arima) efüge ta zoruntsu atan biztandu gura-zala. Ordutik gora ezeban iñoz Joskorputza eskatu.

Josulaün (jesúta) abeak gogo-iñarkunak lekaimiai (monjeai) erazoten euskuzala, ikeítu eban safi neskato samindu au, ta Jaunaftza zer zan argiro ezaututen ebala ikusiki, ezeban atzerarik ixan lenengozko jaunaftza berari gebenduteko (debekateko) ziyorik bapez eguala esateko.

Úrengo jazokunak irakusten dau jaunaftzagaz zan jakituna, ta egiñen oíetarako geftetan iñardula. Egun baten Matale aizpeak (monjak) gexo-zañari iñotsan: «¡Au zoruna, neskato onena! Lasteí ixango don Jaun-goikua'ren gotzontxuba (aingerutxuba); etxon iñoz obenik (pekaturik) egin eta». — «Bai, Ama, esan eban Elenetxu'k *oben-egin yonat, bein guzuña esan nayonan-eta.*»

Geure gotzale edo obispo matiak lenengoz jaunaftzeko eíaz laketu eutsan. Neskatzubari izpaí au ageftu eutsaenian pozaren pozez estanda-egíteko eban bere bijotza, oyuka iñuala: *Berañ nos-edo-nos Jaun-goiko deuna eukiko dot neure bijotzan.*

Lotaziña-6'gn., ilako lenengo barikuban jaunaftu eban lenengoz Gexo-zañak bere besoetan eruan eban txadonera (elexara), ta ikastetxeko lekaime ta neskatzu gustijen aufian Elenetxu'k aítu eban lenengoz *Jaun-goiko deuna*.

Goiko argijak argiztuten eban bere afpegija, gusti-

jak ikusi eben lez. Gero, eskaŕ egin eban, lekaime batek egingo leuken eraz, eskutxukak bular-onduan eunduta, ta ezpanetatik otoi samur-sutsuba erijola. Ixilune itxaltsuba ixan zan txadonan eskaŕ-egitaldi jan; gustijok bijotzak-unkiturik gengozan, eta lekai me ta neskatzurik askok negaŕ-egijan. Neskatzubak iñoz baño sutsubago lenengozko jaunaŕtzeko ereser-ki ja abestuten ebela eruan eben *Elenetxu* bere gelara.

Egun bi geruago. Soŕpen ofbangiarenean jai-egunan baŕiro uferatu zan oindira (altarara) *Jaun-goiko deuna* aŕtzeko, ta lenenguan lez bere aŕpegija argitsu ta edeŕ-edefia zan. Afatsaldian Miren-alabaen ixendegi-jan beria idatzi (eskribidu) eben, eta eleizkixun auntean gelgaríja ixan geban gustijok bere egokerea, batz-be argiro ikusten gebalako geure umetxuba erijo-tzak iota eguala.

Beste egun bi geruago *Azken-Iguitza* emon eutsoen. Ordutik gero ija egunoro jaunaŕtutenean eban.

Gau baten bera zaindutenean ebanak ezin-ixan eban lorik egin, ixildu-barik iñualako: *Nik Jaun-goiko deuna aŕtu gura-yonat; ceguna laster zabalduko ete-don Amatxu?* Gexo-zañak lo-egiteko esanda, Elene-txu'k iñotsan: *cNos etoríko ete-don Houlihan abea?* *Ua ta detu egin, Amatxu, ta esan egits in Jaun-goiko deuna aŕtu gura-yonadala. cBaratzan ezton bixi?* —*Ez, enetxuba,* — erantzun eban gexo-zañak; — *uriyan bixi-don, emen lik uŕun-uŕun, eta orain, ezin eratorri nayeiken.*

Azkenez egun-sentija eldu zan, Elenetxu ta gexo-zaña pozórez betetan euzan eguna, ta jauparija etoŕ-iki umiak Joskorputza aŕtu eban. Eskaŕ-egite labuŕ-

txu-ondoren, ormara begira jaŕi legijela eskatu eban,  
*Jaun-goiko deuna'rekin itz-egiteko.*

Egun baten gure lekenburubak (monja-nagusijak) itandu eutsan: *¿Zein eskar niretzako eskatuko dautsan Jauna'ri donokira juango azanian?—Male-male agijala eskatuko yautsanat,—erantzun eban Ele-netxu'k.*

Gexo-zain aizpeagaz umekiro jolastu ta azazketan zala esan oi-eutsan: *Nik egaz egingo yonat neure Jaun-goikua'gana, lenengo jnunartzeko janzkijagaz jantzita.*

Bere erijotzatzazko eritxi ta ustia auxe zan: gexo-zañaren besoetatik Jaun-goikua'gana egaz juango zala, ta origatik, egun asko auſetijaz ezeutsan beragandik aldenduten izten.

Geldu-gelduta gengozan bere otoi kixunakaz ta ilae-tako lenengo barikubetan eta Oteuna irakuskundia egiten zan egunetan beti eskatuten eban txadonera eruan legijela.

Gabon-gaberdijan jaupea entzun eta jaunaŕtu eban.

Bere miñak getuten yakozañ, eta eurek jasaten (eruaten) egiten euzan alegiñak, ija gixa-emien indafez gañetikuak, ikustiak edonori bijotza beratuten eutsan.

Alako baten ikusi eban negaŕ malkuak lekenburu edo monja-nagusijaren mosuba ziaŕkatuten ebela, ta itandu eutsan: *¿Zegatik negaŕ, Amatxu? Postu bia intzake Jaun-goikua'gana nayualako.*

Gabon-ostian, Otoi-Bazkuna'n saŕtu zan eta ordutik gora beti otoi-egin eban Doipuruba (Ata santuba)'ren aldez, Doibatza (kistaf-batza)'ren aldez, ta obendi edo pekatarijen aldez.

Geure lekenburubak abindu eutsan jaupa (mesa) bat egingo zala bere Amearen gogua-aldez, ta iru egun-buruban itandu eban jaupea egin zanetz eta bere Amea donoki edo zeruban aurkituko ebanetz.

Josu-Kisto'ren Nekauste gufgafijari eutsan lera samu-f-matekoña, egiz, gelgafija zan. Gexo zañak ondoez edo buruko miñagañik antzika egiten ebanian etxakon iñoz bez otuten bere miñak arinduteko efukizko itzik esatia, ezta kendu legitsozantzat Jauna'ri eskatuko eutsala bez; bai, baña esaten eutsan: *¿Zerdaukan, Amatxu? oldostu (pentsau) egin Jaun-goi-ko deunak eure aldes gurutsan nekautsi yonana.*

Bere erijotzaren atzeko egubenan ikaratu eban gexo-zaña; uñeko aulki bat erakutsirik esan eutsan: *Amatxu, jezári adi emen. Esan egistan, Ama, gaur zelan agou. - Oso ondo, Elenetxu. Baña esan egistan, Amatxu, ¿es-al-don susmetan Jaun-goi-ko deuna uñeratzen dala? Nik, bai, susmetan yonat.*

Atarau eban txantelak ixendetan eutsan aguítzea (érrosarijua) esan biañ-ebala Otsala-2'gn., Ama Nesku-tza'ren Gabikunde-jayan. Urte atan igandia (dome-keia) zan eta egun atan bertan, añatsaldeko laurak-inguru. Miren deun-deuna etofi zan bere ume Jaungua'ren mañale txikijan eruaten. Neke-min samiñak eukita be ija ordubetian egon zan oge-baztefera begira, berak ikusten eban *zerbatí* adi-adi, negañ-malkuak mosuba bustiten eutsaela. Biñtan jagiteko ale-gindu zan, ikusten eban *zer* aren bila ba'leyuan lez. Bere ezpanak igituten ziran itz-egiten ba'leban lez, ta begijak zoli-zoli zuzenduten euzan oge-ganian egaz-edo ebilkijon *zer* agana. Gerotxubago añpegikerea

aldatu yakon, begiramena moteldu, ta erijotz-margo-dura zurbila gorputz gustijan ageftu zan.

Bere gogo (arima) efuge ta doniak gorputz txiki erkiña itxitā goira, Goiko Jauna'ren bakaulkiraño igon zan, betiko aldijan Urtzi'ren gotzonakin (aingerubakin, zoruntsuba ixateko *donoki-ala eurontzako da-ta*.

Elenetxu'k lau urte, bost ilabete ta zoitzi egun euzan emen ludijan erijotz-gaba eldu yakonian, gotzon-talde-aftian betiko egunez itxaftuteko.

*Aintzaldu ta donetsi bedi*

*Josu oteunduba,*

*Miren orbangia ta Joseba deunakin batez.*

---

## Oteuna'ren loretxuba

Josu-Bijotza gixa-emien aítian biztanduten atseginda, ta Bera'k gura-ixan daulako, noski, bere Ordez-karijak lenengozko jaunatzazko lagijaz, oteundegi-jan espetuta dagon Jaun goikua'ren eskaíari bidiak zabaldu dautsaz, umien bijotz eíuge zindoetan ugari-jago ixuri dadintzat: Jaungo'zko eskaí au mutiko-neskatoen gogo okeí-bakoetan ugari ta mate-matero za-baltzen dala, bixitzerako uzta gozo-eldubak ekaítuko dauz. Eta urte asko igazi baño lenago safitan ume-aítian gastetako donetasun gelgafija ixango da, ta kistaídia barízttau ta azkoítuko da, bere zatijak, gi-xa-emiak, sañijago mai deunan alikatuko dirala Jaun-goiko-odola aítubaz.

Umien bijotz bijuúgiak Kisto'ren odol deunagaz ez-kotuta, luf onak lez asi dira donetasun-alorta ugari-jaguak eta gozuaguak ekaítutenean, aufeko ingofijetan ikusi dogun lez. Eta batez-be egunoro apaindutenean dira bijotzok Jaungo-lorietarik ederéenakaz, Josu-Bijotza atsegindutenean dabela, ta Bera'k, ordez, geure onez, zan gustija emon eta mate-mate-gauzanak, ludijan donetasun-usain gozua zabaldutenean daula.

Aunetariko loretxu baten gomutea galdu eztadin-tzat, güstijoen onerako ta ume irakuílientzako on-bidia ixango dalakuan, edesau edo esango dautsiet emen bere edesti labuña, notin (pertsona) on-on eta egitijari neuk entzun neutsan lez.

Roma'ko lekaimetxe (monja-konbentu) baten aur-tengo Urtaírla'n neskato-talde batek iñarduban lenen-

gozko jaunaftzerako geftetan. Euretariko bat, sei urteduna, beste gustijen aftian gelgafija zan bere ume-izkereagatik eta irakaskintza entzuten zan adi-adijagatik. Lenengozko jaunaftze-egunaren Oteuna'n ostenduten dan matasun-eskutapenatzaz lekaime monja) batek umiai atzaldu eutsena entzunda neskatua aizpa (monja) irakasliarekin txadon-gela edo sakristijara juan zan. Ara elduki asi zan lekaimia bijaramoneko jaunaftzerako oteungayak (ostijak) geftetan. Onegaz iñardubala bat-batez aftu eban ikasletxubak oteungai bat eta mun-egin eutsan. Otu yakon irakasliari Josu-Kisto oteundubatzazko uste okefen bat umiak ete-eban, eta esan eutsan: *Enetxu ezer egin don? Emen ikusten donasan zatitxubak vindiñ ogipuzkeak baño estonaz, egunoro jakitzat airtzen yonagun ogija lakuak. Bijaŕ, jauparijak Josu-Kisto'ren itz deunak jaupaldijan esango yonazanian, orduban bai, or egongo don Kisto geure Jauna ogipuzka bakotxan.* Josu oteundubaren matale koskoak erantzun eutsan: *Bai, ondo aditu ta uleitutene vonat diñ istana; baña bijaŕ Josu'ri mun-egiten enintzaken azarituko, ta origatik gauŕ auŕetijaz egiten yautsanat.*

\*\*\*

Au irakufi edo entzun dokan ume ori: euk be mate-mate-egik Josu, ta Josu'kin batez, Miren bere Ama deuna, matasun garbi bikoitz aulen sukaŕaz bijotza sutauta kistaŕdi-baratzan donetasun-lore usaintsuba. ta gero, donokijan Jaun-goiko Bakaldunaren laguna ixan adintzat.

V. J.

### Elenetxu'ren bitartez-edo ixandako jazokun gelgarijak

Ingufti aunetan edesau (esan) dan «Elenetxu»'ren edestija italerara biguŕtu eban Deseuffiŕtań Kork'eko Uga'k, Unai Ona'ren lekenburubagandik aŕtutako idazki baten atal batzuk poz-pozik jaŕten doguz emen; izpaŕ uafkarijak dira, ta askoren aburuz Elenetxu'ren bitaftez egin diran *gauza gelgarijetsaskuak*.

*Cork'etik, 1911gko. Urtarila-16gn.*

#### **Agur:**

.....  
Eskaŕ-on a natxatzu geure Elenetxu matiatzazko gauzaetan, ixan dozun ardureagatik.

Ziñez, esan daiskezut eztala egunik igaroten bere bitaŕtez jadetsitako eskaŕen baten izpaŕa geugana eldu-barik, eta uaŕtu biaŕ-da geyenak umien aldezkuak ixan dirala: eurentzako maŕtasun berezija ageŕtzen dabela: nik dakidan askotarik uŕengo auneak bakaŕik atatuten dautzudaz, agirijenak dira-ta.

a) Txiki-txikitatik elbafidun zan mutiko bat gus-tiz osatu zan Elenetxu'ren ilobija ikeŕtuten (bixitetan) juanki.

g) Lepazufeko gatxa eban neskato bat ozta-ozta baño ezin zan zutik egon eta beraz ija ibili bez. Bederatzufena egin eutsan, bere ilobija ikeŕtuten ebala, ta orain ibilde luzziak nekatu-barik egiten dauz.

k) Emakume gaxo bat atsebagez bixi-zan bere se-

naŕ edakoya saŕi moskoŕtutene zalako. Otoi-egin eutsan Elenetxu'rí ekandu gaipto au kendu legijantzat, eta Goikua'ri eskaŕak, bere uzi galgaŕija itxi ta bide onera biguŕtu zan gixona, lenagoko antzik bez eztauakala.

Txikijak eritxi dautseguz eskaŕ onei, noski; baňa euren urengo andijaguak etofi leikez. Biaŕba, olan egiňaz Jauna'k azkoŕtu gura-ixan dauz kistaŕak, umien lenengozko jaunaŕtzatzazko aginduban Doipurubak ageŕtu daun gurea bete dagijentzat.

Araňegun France'tiko idazki bat aŕtu dot. Bertan eskatzen daustez antzezkirik eta al ba-da gomutakirik, bata *Oteuna'ren Maŕtale txikija'ren* bixizpaŕak.

.....  
Esan egistazu, Scotch'en egin dan osapen batetzaz Gotzaliak idatzi dautzunetz. Geuk ondiňo eztogu onetzazko izpaŕik aŕtu, eskatu dogun afen. *Gotzaliak gusti onen barri emongo edo-dautzu.*

Jabieŕtaŕ Pantzeska-deunaren Miren  
aizpea Unai ona'ren lekaimia.

**Elenetxu'ren izpar barljak, Cork'eko Unai Ona'ren lekaime  
baten idazki batetik artubak.**

*Cork'etik 1911gko. Otsala - 4gk.*

**AGUR.**

Elenetxu'ren miñetarik zoñotzenetarikua zan matrañazufe ko gexuak egiten eutsana; il baño lenago matrañazufe ko zati bat zatika jausi yakon. Min gogoñori jasaten eban gogo senduaz safi-sañi gelduten nin-tzan. Egunian-egunian osatu biañi yakon abua, ta osakuntza au, matzañea eukan minbereaz, mingafí-min-gafija zan. Bera baño andijago bat-edo-batek, akijkularik ixango leuke, noski, osakuntza ori egiten ez-izteko, baña neskatua etzan iñoz jañki, bai ordez, gogo-onaz geftetan zan, eta gelgafijago, bere min-gustijok Josu-Kisto'renakin batez eskintzen ebazan.

Etzaunda eguanetan, bere jañkera apala gelgafija zan. Neskato miñez betia ixanik, ikaratzeak da oian artega ta urduri ez-egotia. Baña etzan au jazoten; neskato gaxoa luzaro egoten zan egokera batentxe; oñak luze ta eskutxubak bulañ-gañian eunduta edo gurutze estututen.

Olan ikusirik askotan oldoztuteneban aldi aretan goiko gotzonak lagun egiten eutsaela; egijaz ba, ezta ikusten neskatzu minduren bat bere miñak jasaten bare egotia.

Bere erijotzaren atzeko egubenan, Jaun goiko geure Jauna'ren onduan eskijeŕ edo ziuf egoteko il gura-nintzala ageftuten neutsan. Ume matiak, begiztu nenduban eta'gero, neure baŕuban irakuŕi ba'leban lez, esan eustan: *Bai, Ama, obla ixango azanian eta Jaun-goi-ko deunak eskatzen dausnana egingo donanian.*

Ordutik gero safi-safi gomutau naz itz gelgari one-kaz; ta uaŕtu gura-dot aldi onetan bijok bakaŕik gen-gozala.

Artega gagoz ondiño bixijenaren (cáncer) izpafen begira; uste-dot laster elduko yakuzala.

.....  
N. N.

*Unai Ona'ren lekaimia.*

**¡Gora Josu!**



# B I L A B I D I A

	<u>Ingosk</u>
Uaŕa.....	4
Euzkeldun umiai.....	5
Ireland'eko Cork'eko Gotzaliak Roma'ra bidaldu eban idazkija.....	9
Ireland'eko Deun-Finbar ikastetxeko neskato ikasliak Doipurubari bidaldutako idazkija...	11
Doipurubaren ukidazkija, aufekuari erantzuten dautsana.....	14
Elenetxu'ren biztaldiko izpaŕak, bera ilda Cork'eko Deun-Finbar ikastetxeko Unai Ona'ren lekaimiak argitaldu dabezanak.....	15
Oteuna'ren loretxuba.....	26
Elenetxu'ren bitaŕtez-edo ixandako jazokun gel-gafijak .....	28
Elenetxu'ren izpaŕ baŕijak, Cork'eko Unai Ona'ren lekaime baten idazki batetik aŕtubak.	30



